



Aurtengo «Eisteddfod» delakoa Gales-ko Iparraldean, Rhyl-en.



Gales-ko ikurrria: herensuge gorria, zerrrenda berde baten gainean.

Gaur amaituko da galestarren Aberri-Astea

Rhyl-go hondartza luzea. Hitsu ere bai. Apur bat Herriko itsasertzik gehienetan bezala, itsasoa Iparraldean ageri da; bizkarraldean herria eta mendiak uzten ditugularik.

Rhyl ez dago Cymru-ko mugetatik urruti. Han urruncan, ozta-ozta errepagarri, Liverpool famatuko dorre-eteke zuri batzu somatzen dira. Rhyl-go plaiaurre luzean, kilometro batzutan barrena, «bingoak» eta «slot-machine» delakoak agertzen dira ilara azkengabeen. Turista pila bat, gazte jendea nagusi agian. Hondartzaren ondoko ilara horretan, «B B» letratu nabarmen, behin eta berriaz. Ez pentsa, ordea, gure «3 4 1» horren oihartzuna edo denik. Ez horixe. Rhul turismo lekua da gaur, errotik; orain dela 30 urte horrelakoa ez bazen ere. Eta «B B» harrigarri hori, turismoari datzekio: «Bed and Breakfast», ohea eta gosaria.

Prestatun-go poeta baten etxean afaldu dut. Berak ez daki kemieriaz (galesez), emazteak badaki ere. Prestatun bertago da mugatik Rhyl baino. Hots, azaldu didatenez, orain dela 50 urte, bertako jendeak ez zekien kemieriaz besterik... Turismoaren olatua etorri gerotzik, berriaz, kittedo: belauz berriek jakin ere ez dakite. Turismoaren olatu gaitz hori Ingalaterratik etorri baita batez ere: Liverpool, hortxe dago; eta Manchester bera ere, ez oso urrun.

Rhyl-ek, hitz batez, Iparraldea gogorazi dit. Eta egoera bertsua dut Clwyd-eko konteiri osoan. Abertale jendea oso kezkatuta dago; eta pareta askotan irakur daiteke: «Starter Clwyds», «Charte» Clwydantzat, Estatutua nolabait esateko.

Hots, Rhyl horixe izan da hautatua Cymru-ko «Eisteddfod» famatua antolatzeko; nolabait hango Aberri-Astea, alegia. Datorren larunbatera arte, datorren abuztuaren 10ra arte beraz, hantxe ospatzen da galestarren Nazio-Biltzarre nagusia.

Zer aurkitzen du han euskaldun batek

Egia esan, «Eisteddfod» de-

lako hori ez da Rhyl-en bertan bildu. Lauzprobost kilometro egin behar dira kostaldetik barrialdera, kanpamendu harrigarri hori aurkitzeko.

Aste osoan barrena, bertan eraiki diren oihal-antzoki eskergera horietan (bata nagusia, erdian; baina baita beste txikiago batzu ere inguruetan), etengabe ariko dira Gales gutziti etorritako dantza-taldeak eta orfeoiak. Badu festak, beraz, halako folkloek kutsua.

Hori bakarrik ez. Eisteddfod horretan izendatzen baita, urtero, «Druida» berri bat, idazle bat eskuarki. Izendapena egiteko, «cromlech» berezi bat eraiki erazten da. Eta aurtengoa ere han dago, poliki egina, Rhyl-go hondartzaren ondo-ondoan. Aspaldikoa ere badirudi, eta halkotzat hartuko luke askok... Baina bai «cromlech» berri horiek, bai «Druida» horiei dagokien guztiak, halako postiche kutsua dute; dena joan den mendeko erromantizismoaren ekarria baita.

Kontrastea, beraz, ezin handiagoa da. Rhyl-go hondartzaren inguruetan dabilzten gazteek, eraztuna baitaramate belarrietan (ezkerrekoan bakarrik, oker ez banago); eta cromlech berriaren ondoko piszinak (pizina estali gaitzak, «sunder one roof» irakur daitekeenez), ez baitu inor «Druida» horien aldera bultzatzen... Bazter gutzitiatik heldu den rock-aire zaratatsuek ere ez, bestalde!

Hantxe duzue aurtengo Eisteddfod delakoa

Sekulako uzku duraz hurbildu naiz hara, hortaz, Iparraldeko «Fete du Thon» edo «Les Pottoks de la Rhune» zetozkidan burura. Folklorekerien parabisua topatu uste nuen; eta oso beldurtua nindoan. Egia da.

Eta Iparraldeko ikurrin-betkada ezagutu dugunok, kezka bera ateratu dugu inguratzean: bazter gutzitiak, eta oihaldenda asko eta askotan, Herensuge Gorriaren bandera gailen: chunka, milaka agian. Nola uler, hortaz, politikaren alorrean galestarrek orain dela sei urte jasan zuten frakaso gaitza? (Galesko Parlamentua zekarren



Kate Roberts Gales-ko nobelarik herrikoiena, orain dela hilabete batzu bere 94 urteetan hila.

«Devolution» erreferenduna galdu zuten). Abertzaleek Galesen ez dute inoiz 12 baino gehiago lortu.

Eisteddfod-ean, halere, kemieria da hizkuntza bakarra. Astebetez nazio-hizkuntza da, han bederen, mintzabide bakarra; eta ehun edo berrehun denda edo postu haietan, ezer ez da entzuten eta ez saltzen (liburu banaka batzu salbu, agian) kemieriaz baizik.

Erdian dagoen zirkodenda gaitzak gain, adibidez, bi stand nagusitzen dira: bata, handiena, ederrenea BBCren Laugarren Kanalak eraiki du (oraindik ere, 23 ordu galesez astero kate honetan; gainerako orduetan Londresekin, eta ingelesez beraz, ari badira ere). Bestea, handienetakoa, HTV telebista-katearena, pribatua, zenbait orduz ere galesez ari (neronek ikusi dut gau-emanaldi horietako bat kate honetan). Gales-tarrak oso harro daude beren telebista horretaz; eta ongi ageri da Eisteddfod-ean. Bi hyper-denda horietan, zer esan-nik ez, papera eta ordezkariak, gales hutesz ari.

Telefonikak dena kemieriaz

Sorpresak, ordea, ez dira horretan gelditu. Beste stand handi bat (eta dotorena, agian) «Telecom»-ek eraiki du. Dena kemieriaz. Hango Telefonikak, alegia. Eta hemen, zer?

Goazen aurrerago. Bangor-ko Unibertsitatearen propaganda (Iparraldean hau, Galesen) kemieriaz dator; liburuska ofiziala, nola ireki, ingelesez eta kemieriaz badator ere. (Ia lejoak edo Zorroagak noiz horrelakorik). Areago: Liverpool hurbil xamar dagoenez, hantxe duzue Ingalaterrako hiri honetako Unibertsitatearen propaganda kemieriaz, eta Liverpool bera, «Lerpwl» bihurtua delarik, ia noiz horrelakorik Salamankako edo Bordaleko Unibertsitateak...

Eiizek ere (eiizek, bai; eta ez elizak) kemieriaz egiten dute beren propaganda: Presbiterianoak han «Bresbyteriaid» bihurtu dira, eta abar. Ezkertar kristauak ez dira falta: stand batetan, Nikaraguaren aldekoak daude, dena kemieriaz; hurrengoan Ethiopia lagundu nahi dutenak, dena kemieriaz; beste batetan Kubaren aldeko mogramendu bat («Ciwba» irakurtzen dugu pankartetan, eta ez «Cuba»; ingeles iragazkiaren eragina salatuz). Irakaslearen Elkartek, gauza bera. Eta berdin anti-nuklearrak, emakumeak, nor-nahi. Denak kemieria hutesz.

Stand horietako batetan, orain dela lau urte ezagutu nuen Daffyd Iwan kantaria agurtzeko poza izan dut. Disko pila bere dendan; bereak nagusi, jakina. Laguntza ofizialik gabe ari direla azaldu du, eta ongi saltzen direla galesko diskerak. Hango Benito Lertxundi horrek (Xabier Lete-rekin aldearitzea hobe, agian; D. Iwan gaur Playd Cymru alderdi abertzalean «norbait» denez gero) oso harrera oña egin digu. Azken bolada honetan kantatzeari utzi dio... baina pozik bide letorke Euskal Herrira.

Hizkuntzaren azoka

Dantzaldiak eta kantaldiak aparte, ordea, Liburu-Azoka bat dirudi Eisteddfod-ek. Eta hizkuntzaren beraren azoka harrigarri bat. Hantxe aurkitu ditut hango EHE-koak: «Xymdeithas yr Iaith» delakoa, galesko telebistaren kanpainan Pencarreg-eko bulegoa okupatu zuen organizazioa. Boligrafoak

egin dituzte, kolatzeko bandak, kartelak; eta urtean lau aldiz argitaratzen dute beren aldizkari berezia. Txapak ere ugari. Ia-ia hemengo gauza berak. Baina baita beste gauza intelektualago batzu ere: Rhul bera galestartzeko plangintza bat, adibidez (hemen daukat ale bat).

Beste stand batetan «Affer»-koak aurkitu ditut: «Xymdeithas»-en zatiketa batetan sortua, bestea baino «apolitikoago» omen da talde hori.

«Playd Cymru» alderdia ere bai, jakina: hantxe bere postuarrekin. Eta propaganda ugari, kemieriaz.

Baina, gorago esan dudanez, Durangoko Azoka eskerga bat dugu Eisteddfod delakoa. Liburuak bazter gutzitan. Liburu ederrak, itxuraz; hemengoak baino dotoreagoak, nik aste. Nola hori? Argi-eta-garbi aitortzen dute: Londres-eko Gobernuaren laguntzari esker... Gales-en, irakurleak ere ongi dakikeenez, Gobernu Autonomik ez baitago. Honetaz zehazkiago mintzatuko naiz beste batez: bego horretan oraingo. Liburu ederrak kemieriaz, eta asko: ia laurhun urtean, eta gure maila beraz.

Baina liburu «normal» gehiago, agian. Zientzi-liburuak badaude, esate baterako (baita «Elhuyar» bat ere, hemengoak baino askoz dotreagoa). Baina baita bestelakoak ere: Kennedy-ren biografia bat, adibidez; edo, oso apain, eta tamaina handian, «Taj-Mahal»-ari buruzko lan bat. Edo-ta txoriei buruzko bat, foto ederrez hornitua. Eta abar.

Zer pentsa, beraz? Gu baino hobeki daude? Zein hiebururi buruz? Ez dut gaur erantzun. Baina: bai eta ez. Irakurleak ere bere kaskoan pentsa beza.

Puntu tristagarri bat azpimarratu behar, halere: gure internazionalismo famatu hori Eisteddfod eta Cymru herri anaiarenganaino ez heltzea.

Badugu honetan autokritika-behar gorria. Gauzak gertatzen diren bezala badirudi... Hori, bai! Nork ez du asmatu zertaz mintzo naizen?

TXILLARDEGI